



JARDUNALDI IREKIA

HOGETTI

PROIEKTUAREN AURKEZPENA

TEKNOLOGIA BERRIAK , GIZA-SAREAK ETA GIZARTE ETA HEZKUNTZAREN ESKUHARTZEA

Hezikerb Elkartetik, GFAko Gazteria sailaren diru laguntzari esker, "Hogetti" proiektuaren jaurtiketa egiten ari gara.

Hogetti, Gizarte eta hezkuntzaren inguruko programei (Gaztelekuak, kale heziketa programak, etxe-harrera zerbitzuak, familiar-hezkuntza, Gazte Informazio Bulegoak, Astialdi Taldeak eta kolektibo honi zuzendutako bestelako errekurtsoak) lotuak dauden Gipuzkoako gazteei zuzenduta dagoen Interneteko giza-sarea da.

Biztanle guztiak teknologia berrien aroan murgildurik aurkintzen gara. Gazteek egunero erabiltzen dituzte askatasun osoz bakarka, taldeka eta baita espazio hezigarrietan (gaztelekuetan, eskoletan...). Bai sareak eta baita topagune birtualek ere aukera asko eskaintzen dituzte, baina baita arriskuak ere.

Hogettik helburu asko biltzen ditu bere baitan, baina garrantzitsuen duen helburua gazteen babesa da **harreman birtualak egiazkoak bihurtzean**, herri ezberdinetako gazteen topaketak bultzatzean, ekintzen elkartrukeetan, geldialdietan, trukaketetan...

Web gunearen jatorri eta filosofia ulertzeko, bertara sartzea gonbidatzen zaituztegu:

www.hoGetti.net



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Gizarte Politikako Departamentua
Departamento de Política Social



Ikus dezakezuen bezala, sarbidea mugatua dago eta parte hartu nahi duen gazteak, hezitzairengana jo beharko du erabiltzailearen bila.

Aurkezpen jardunaldi honetan, ondorengoa azalduko dizuegu: hainbat hausnarketa, proiektuaren ikuspegia, alderdi praktikoak...

Proiektuaren funtzionamendu egokian, hezitzaileak ezinbestekoak gara; honengatik, jardunaldira etortzera gonbidatzen zaituztegu.

Jardunaldiaren eskema:

1. Aurkezpena
2. "Hezitzailea kale berrietan: giza-sareak": aukerak eta arriskuak. Asier Gallastegi. Hezitzailea, ikuskatzailea, terapeuta, kontsultaria eta Teknologia Berrietan aditua.
3. Gizarte eta heziketa programetako gazteen teknologia berrien erabilpenaren inguruan egindako azterketaren emaitzen aurkezpena.
4. Hogetti: gizarte eta heziketa eskuhartzerako espazio berri bat.
5. Giza-sarearen aurkezpena.

Eguna: Martxoak 3

Ordua: 10:30-13:00

Lekua: CRAJI, Anoeta 28, Donostia.

Jardunaldia irekia eta doakoa da, baina banatuko dugun informazio eta materiala eskuratu nahi baduzue asistentzia konfirmatzea eskertuko genizueke:

idazkaritza@hezizerb.net

Tfno: 943 32 67 84